



## Ibermaticak Adimen Artifiziala landuko du

Ibermatica Adimen Artifizialeko alorreanari da lanean. Oraingoan, sare neuronal artifizialekin lan egin dute eta horien bidez, segurtasun zonaldeen sarbideen kontrolaren inguruan hausnarketak egin dituzte.

Adimen Artifizialaren inguruko eskaintza zabala da: norbanakoak identifika daitezke aurpegiko errekonozimenduaren bidez, edo lantegien ekoizpenari begira, piezen ukituaren kalitatea kontrolatu daiteke. Pixkanaka-pixkanaka, prozedura hori bere lekua hartuz doa enpresa munduan, prozesuak eta lehiakortasuna hobetuz. Sare neuronal artifizialek giza burmuinaren funtzionamendua simulatzen dute; hau da, ikusi bezain laster, objektuak edo pertsonak ezagutzea da xedea. Azpimarratzekoa da sistema horietan ez dela programazio informatikoa erabiltzen, neutrona naturalak imitatzen dituzten elkarloturiko sare neuronal bat baizik. Besteak beste, objektuak eta pertsonak ezagutzen ikas dezake baina horretarako, lehenbizi erakutsi egin behar zaio.